

FEDERACIÓN NAVARRA DE DEPORTES DE MONTAÑA Y ESCALADA
MENDI ETA ESKALADA KIROL EN NAFAR FEDERAKUNDEA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



NAFARROAKO ZIRKUITUA

Marchas / Martxak

REGLAMENTO / ARAUDIA 2025



helvetia



Reglamento /Araudia

2025

ARAUDIA

1. Ibilbide Luzeko Ibilaldiak hauxek dira: 20 kilometro baino gehiago dutenak eta hiri barnetik kanpo egiten direnak.
2. Ibilbide Luzeko Martxak mendiko kirola sustatzera bideratuta daude, parte-hartzaileei gure herri, bailara, jende eta mendietako geografia eta ondarea erakutsiz.
3. Martxa hauek gazte eta heldu guztiei irekita daude. Mendi Federazioan Federatuta egotea gomendatzen da.
4. Aurreko urteetan egin ohi duen data aldatzea erabakitzen duen klubak gainerako martxen egutegia errespetatu beharko du, eta ezin izango da inolaz ere bat etorri egun berean lehendik zegoen martxa batekin. Bestela, martxa hori zirkuitutik kanpo geratuko da.
5. Ibilaldi bakoitzean gehieneko eta gutxieneko denbora ezarriko da ibilbidea egiteko.
6. IBILALDI bakoitzaren antolatzaileek txartel bat emango diete parte-hartzaile guztiei. Txartel hori ezarritako kontrol-puntu guztietan bete behar da.
7.
 - a) Klub antolatzaileak ILIB-ren azken emaitzaren akta egingo du, eta honako datu hauek jasoko ditu:
 - 1.- Parte-hartzaileen kopurua, guztira.
 - 2.- Amaitzen duten parte-hartzaileen kopurua. Gizonak eta emakumeak.
 - 3.-Excel taulan **federatutako** sailkatutakoen zerrenda, **hurrenkera alfabetikoaren** arabera. 5 gelaxka izan beharko ditu: izena, bi abizen, NAN, posta elektronikoa eta kluba, eta bi ibilbide puntuagarrietatik zein egin duten bereizi beharko du.
 - b) Klub antolatzaileak a) puntuko datuak bidaliko dizkio Federazioari, Excel formatuan, hura amaitu eta gehienez 21 eguneko epean. Zerrenda horiek aurreko puntuan aipatutako datu berak izan beharko dituzte.**
8. Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik hartuko parte-hartzaileek martxetan zehar izan ditzaketen istripuen aurrean, uste baitute mendiko edozein federazioen federazio-lizentziaren aseguruak edo horretarako kontratatutako beste aseguru batek estaliko dituela, betiere parte-hartzaile bakoitzaren erantzukizun bakarraren pean.
9. Parte-hartzaileek banaka egingo dute.

Federación Navarra de Deportes de Montaña y Escalada – Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundea

10. Antolakuntzak hornidura-zerbitzuak muntatu ahal izango ditu, eta parte-hartzaileei jakinaraziko dizkie. Hornidura-lekuak erabat garbi utziko dira.

11. Klub antolatzaileek informazio hau eman beharko dute inprimatutako propagandan:

- Klub antolatzailearen izena.
- Inskripzio baldintzak.
- Parte hartzaile gehiengoa eta izen emate datak.
- Mapa, kilometroak eta desnibel grafikoak.
- Kontrol puntuen arteko erlazioa eta egoera.
- Sorospen guneen egoera.
- Anoa puntuak egotearen kasuan hauen egoera eta erlazioa.
- Gomendio eta jarraibide zehatzak ingurugiro praktika egokien inguruan.
- Izen ematea burutzeko jarraibideak.
- Ordainketa modua , izan ezker.

12. Klub antolatzaileek Nafarroako Mendi eta Eskalada Kirolen Federazioaren logoa eta Nafarroako Ibilbide Luzeen Zirkuituarena sartuko dituzte kartel eta liburuxketan. Gainera, proba Nafarroako Ibilaldi Luzeen Zirkuituko parte dela aipatuko dute.

13. Martxak balizatzeko ez da inoiz pinturarik erabiliko. Banderatxoak edo plastikozko zintak erabiliz gero, klub antolatzaileak proba amaitu eta berehala jasoko ditu.

14. Martxa hastean eguraldiak parte-hartzaileentzat arriskua sortzen badu, antolatzaileek proba bertan behera utzi, aldatu edo atzeratu ahal izango dute.

15. Erakundea osasun-laguntzaz arduratuko da, beharrezkoa izanez gero, baita beste laguntza-baliabide batzuez ere.

16. Iraupen Luzeko Martxen Batzorde bat egongo da, sor daitezkeen zalantzak eta bestelako gaiak argitzeko. Hauek osatuko dute batzordea, Sara Zapata edo bere ordezkari egonen dena, Iñaki Gonzalez.

17. Euskara, Nafarroako berezko hizkuntza den aldetik, modu duinean agertuko da Zirkuituaren antolaketan sortzen den informazio guztian.

18. Informazioa Beatriz Morionesek zentralizatuko du Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioan.
19. Zirkuituko ekintzak koordinatzeaz arduratuko diren pertsonak hauexek dira: Iñaki Gonzalez eta Mikel Goldarazena.
20. Finalista izateko honela puntuatuko da: Martxa luzeari 2 puntu eta besteari puntu 1.
21. 35 kilometro baino gutxiago duten martxetan 14 urte baino gutxiago duten lagunek beste pertsonaren pean egonen dira. Pertsona honek gutxienez 18 urte izanen ditu.
22. Martxa hauetan ez da sailkapenik izango eta denborak ez dira argitaratuko.
23. 35 kilometro baino gehiago duten martxetan partaideek gutxienez 18 urte izanen dituzte, puntuak izateko.
24. Aipatutako sailkapenean puntuak lortzeko, parte-hartzaile **guztiek mendian federatuta egon beharko dute (FEDMEren edo bere lurraldeetako edozeinen lizentziak egiaztatzen dituztenak)**, eta gutxienez 13 puntu batu beharko dituzte.
25. 13 puntu lortzen dituztenek oparitxo txiki bat jasoko dute Zirkuitua amaitzean. Xehetasun hori MEKNFak horretarako antolatuko duen ekitaldi batean emango da.
26. **EDALONTZIRIK EZ** da izanen martxetan. Bakoitzak berea eramanen du.
27. Antolatzeek martxaren erdi puntu batean martxa uztera behartu dezakete hainbat arrazoigatik, zein erritmoagatik. Bataz besteko 4 kilometro/orduko abiadura kontutan hartuko da.
28. Martxa bukaeran antolatzaileek dokumenturen bat igorriko diote parte hartzaileari. Txartela, diploma edo besteren bat, erreklamazioen aurrean hau aurkeztu beharko da.

BALIZAJEA

- Balizajearen garbiketa, posible baldin bada, egunean bertan egingen da.
- Balizajea horrela izanen da: marka batetik hurrengo ikusi eta atzera begiratzen baduzu atzekoa ikusi.
- Bidegurutzeak ongi markatuak egonen dira. Balizak, beti, joan behar dugun aldera izanen dira.
- Bidezerrak ez dira erabaliko, batez ere ingurugiroan ez kaltetzeko.

ERREKLAMAZIOAK:

Azken martxa egin ondoren eta Txapelketa honetako sailkapen guztiak bildu ondoren, Federazioak araudi honetako 25. puntua bete duten parte-hartzaileen zerrenda argitaratuko du bere webgunean

Argitaratu ondoren, 15 eguneko epea irekiko da zerrenda horri erreklamazioak egiteko. Epe hori amaitutakoan, behin betiko zerrenda argitaratuko da, eta ez du erreklamazio edo aldaketa berririk eragingo.

Erreklamazioak erregelamendu honen 1. eranskinean aurkeztu beharko dira.

2025EAN ZIRKUITUAREN BARNE EGONEN DIREN MARTXAK HONAKOAK IZANGO DIRA:

enero							febrero							marzo							abril						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4	5					1	2						1	2					1	2	3
6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13
13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20
20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27
27	28	29	30	31			24	25	26	27	28			24	25	26	27	28	29	30	28	29	30				
														31													
mayo							junio							julio							agosto						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
			1	2	3	4						1			1	2	3	4	5	6					1	2	3
5	6	7	8	9	10	11	2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
12	13	14	15	16	17	18	9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
19	20	21	22	23	24	25	16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
26	27	28	29	30	31		23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	31
							30																				
septiembre							octubre							noviembre							diciembre						
L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D	L	M	M	J	V	S	D
1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4						1	2	1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28
29	30						27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30	29	30	31				

IBILDIA/MARCHA	DATA / FECHA
MARCHA LODOSA	15/03/2025
SARBIL	29/03/2025
MARCHA AMESKOANA	13/04/2025
SAKANAKO XXXIV IBILALDI HANDIA	26/04/2025
ETXALARKO MENDI ITZULIA	04/05/2025
XVI HIRU MENDI ZERRAK	10/05/2025
LA FUGA MENDI MARTXA	17/05/2025
BERAKO ITZULIA	18/05/2025
BAZTANGO XXIX MENDI ITZULIA	25/05/2025
ARALARKO IBILDIA	15/06/2025
ARESOKO XV. ITZULIA	07/09/2025
XIV MARCHA ALTO PIRINEO RONCALES	20/09/2025
EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA *	12/10/2025

*Marcha promoción no puntua para el circuito

ERANSKINA 1: ERREKLAMAZIO ORRIA

Orri horrek atal guztiak beteta eta erreklamatzailerak sinatuta egon beharko du. Erreklamazioaren kopia edo fotokopia bat eman beharko zaio erreklamatzailerari.

DATOS DE LA PRUEBA		RECLAMANTE	
Núm reclamación Erreklamazio zenbakia	FNDME	Nombre Izena	
MARCHA IBILALDIA		Club o federación a la que pertenece/Partaidearen taldea edo Federazioa	
Fecha de celebración Proba eguna		DNI o NIE NAN edo NIE	
Lugar Tokia		Dirección Helbidea	
Club Organizador Klub antolatzailea		Teléfono Telefonoa	

Deportistas afectados / Eragindako kirolaria:

Nombre / Izen-abizena:	Club o Federación / Taldea edo Federazioa:

Exposición de los hechos / Gertakarien azalpena:

Solicitud/Eskaria:

En....., a..... de de.....

.....(e)n, ko (a)ren ... (a)n

El reclamante / Erreklamazioegilea